


Elia ordenagailuko aplikazioaren eskuliburua

Dokumentu hau Elia Elhuyarren itzultzaile automatikoa norberak bere ordenagailuko mahaigainetik erabiltzeko eskuliburua da. Aplikazio honen bidez, behin martxan jarrita, edozein testu itzultzeko eta ordezkatzeko (testu hori editagarria bada) aukera izango du erabiltzaileak, modu erraz eta azkar batean.

Ordenagailuko edozein aplikaziotan testua aukeratu eta **Ctrl + C Ctrl + C** laster-tekla sakatuz, Elia aplikazioa ireki eta itzulpena emango digu.

Aplikazioa instalatu


- Aplikazioa erabiltzen hasteko, Eliaren webgunetik deskargatu beharko da instalatzailea. Instalatzaileak Windows eta Linux sistema eragileetarako balio du.
- Behin instalatzailea deskargatuta, ohikoena da instalatzailea erabiltzailearen ordenagailuko Deskargak karpetan kokatzea. Hala bada, joan karpeta horretara, eta honako exekutagarri hau egongo da:

 Elia 1.0.0	27/05/2022 12:23	Aplicación	56.108 KB
--	------------------	------------	-----------


Fitxategiaren gainean klik bikoitza eginda, instalatzen hasiko da. Instalatzaileak agindutako pausoak eman besterik ez da egin beharko. Instalatzen amaitutakoan, Elia aplikazioa martxan jarriko da atzealdean; ez da beste leihorik irekiko. Ordenagailua pizten den aldiro jarriko da martxan aplikazioa.

Itzulpen bat egin


- Pauso honetara iritsitakoan, aplikazioa erabiltzeko prest egongo da. Adibide gisa, demagun mezu elektronikoa bat idazten ari garela eta itzuli egin nahi dugula. Urrats hauek egin jarraitu beharko ditugu:
 - **Itzuli nahi den testua aukeratu.**






- **Ctrl+C Ctrl+C laster-tekla sakatu.** Elia aplikazioa irekiko da, eta, zuzenean, aukeratutako testuaren itzulpena emango digu. Sistemak automatikoki detektatzen du aukeratutako testuaren hizkuntza.



- **Nahi dugun hizkuntzara itzuli.** Esan bezala, aplikazioak zuzenean gaztelaniara itzuli du kasu honetan. Beste hizkuntza batera itzuli nahiko bagenu, Eliaren webgunean bezala, helburuko hizkuntza aldatu beharko dugu, eta, ondoren, "ITZULI" botoia sakatu.



- **Itzulitako testua jatorrizko testuaren ordeztu (Ctrl + V Ctrl + V laster-tekla).** Itzulpena egin ondoren, helburuko testuaren kutxaren eskuinaldeari erreparatzen badiogu, bi ikono ikusiko ditugu.
 -  itzulitako testua kopiatzeko balio du, webgunean bezala.
 -  jatorrizko testua ordeztuko du itzulpenarekin. Testua jatorrizkoaren lekuan txertatu ondoren, aplikazioaren leihoa itxi egingo da, eta sistemak txertatu duen itzulpena ikusiko dugu.




Kasu honetan *Gmail* erabili da funtzionalitatea azaltzeko, baina beste edozein programa edo aplikaziotan erabil daiteke: *Microsoft Word*, *LibreOffice*, *Google Drive*, *Twitter*, etab. Hala ere, ezinbestekoa da txertaketa egin arte idazten ari ginen leihoa irekita egotea eta ordeztu nahi den testua aukeratua izatea.

Jatorrizko testua itzulpenaz ordezteko erabiltzeaz gain, testuak ulertzeko ere erabil daiteke


aplikazioa. Nahiz eta jatorrizko testua ez izan editagarria (webgune bat, adibidez), esaldi, paragrafo edo testu-zati bat aukeratu dezakegu, eta, laster-tekla sakatuz, itzuli.


Erregistratutako erabiltzaileak

Eliaren webgunean bezala, erregistratuta dauden edo ordainpeko tarifa duten erabiltzaileek aldiko hitz-kopuru handiagoa itzultzeko aukera izango dute. Zure erabiltzaile-planeko hitz-kopurua gainditzen baduzu, errore-mezu bat erakutsiko dizu aplikazioak.




Aplikazioaren leiho nagusian **“BEZEROAREN GUNEA”** botoia sakatuz gero, saioa hasteko botoi bat agertuko da. Bertan sakatu, eta saioa hasteko leihoa irekiko da.





Saioa hasitakoan, erabiltzaileak aldi berean itzul dezakeen hitz-kopurua eguneratu egingo da, berezoaren planaren arabera, eta “BEZEROAREN GUNEA” jartzen zuen botoian erabiltzailearen izena agertuko da, ondorengo irudian ikusten den bezala.



Aplikazioa ixteko, “BEZEROAREN GUNEA” botoian edo erabiltzaile-izenaren gainean klik egin, eta “Itxi aplikazioa” aukera azalduko da. Aplikazioa ixten bada, laster-teklak ez du funtzionatuko; berriz martxan jartzeko, mahaigainean sortu den lasterbidean klik bikoitza egin beharko duzu. Ordenagailua berrasieratzean, berriz, automatikoki martxan jarriko da.